

BEZERO KANALA


Bezero kanalak enpresek bezeroekin komunikatzeko erabiltzen dituzten moduak dira. Bertan bezeroekin komunikatzeko aukera izango dugu eta edozein arazo edo duda izanez gero laguntza eskainiko diegu. Bezeroak hiru modu desberdinen bitartez jarri daitezke gurekin harremanetan. Modu pertsonalean, gure pabeiora urbiduz. Internet-en bidez, gure webgunean sartuz eta sare sozialen bidez.

Pabeioia: Adunan kokatuta dago. Bertan, gure enpresak bi gune nagusi izango ditu. Lehenengoan, materialak ekoitzi eta biltegitratuko dira eta bigarreanean, bulego bat izango dugu, bezeroekin bildu ahal izateko arreta pertsonalizatua eskainiz eta beraien arazo eta dukekin laguntzeko. Gure gomendioak baliagarri izango dira bezeroentzat esperientzia hobea lortzeko.



Webgunea: Gure enpresak denda birtual bat du. Gure webgunean, bezeroek gure produktuak modu erraz eta seguruan erosteko aukera izango dute. Kontsultak edo arazoak izanez gero, harremanetarako hainbat bide proposatzen ditugu: posta elektronikoa eta telefonoa. Horrela, bezeroak modu errazagoan komunikatu ahal izango dira, gure pabeioira etorri beharrean.





Sare sozialak: Konektatuta mantentzeko eta gure produktuei buruzko informazio zehatza emateko, sare sozialetan ere egongo gara. Kanal horietan, hala nola Instagramen, artikulua bakoitzaren informazioa eta deskribapen zehatzak partekatuko ditugu. Instagrameko txataren bidez, erabiltzaileek zuzeneko harremanetarako aukera izango dute, eta horrek komunikazio arina eta hurbila errazten du. Instagramen argazkiak ere igoko ditugu jendeak beste lekuetan nola geratu diren gure plakak ikusi ahal izateko.